


Heri Aldizkaria

**otomoto**

2001eko azaroa 72. alea

**Aitor  
Arnaiz**




**Gipuzkoako 600 zaleen  
elkarteko lehendakaria**

SANTA LUTZI FERIA 2001

ELKARRIZKETAK: BALEN TRAMON ETA OIHANE TOLEDO

IZERDI PATSETAN: GOIERRIKO NESKEN SASKIBALOI TALDEA

# Ondo pasa Santa Lutziak!



**MERKA-UROLA ALTZARIAK**

Mugitegi, 17. Tel./fax: 943 72 58 28 URRETXU

Ondo pasa Santa Lutziak!



**1951n, Juanita Plazaolaren ezkon aurreko agurrean ateratako argazkia.**

Goialdean: Juanita Elortza, Rosario Gorostegi, Maria Elortza, Carmen Elortza, Maria Mujika, Anttoni Loiarde, Bittori Mujika eta Maria Kerejeta.

Behealdean: Joxepa Bastarrika, Juanita Plazaola eta Miren Zaldua.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandaño diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

**Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>  
**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

## Kamerungo herritarrei laguntzeko denda eta erakusketa

Kilimatrakak, Zumarragako parrokiaren aisialdi taldeak, urtero bezala, denda solidarioa zabaldu du. Horretaz gain, Kamerungo eskulanean erakusketa ere ireki du Itarte Etxean.

Kilimatranka taldearen helburua gazteen artean kristau fedea zabaltea da eta adiskidetasuna, errespetoa, tolerantzia eta solidaritatea bezalako baloreak lantzen saiatzen dira.

Elkartasuna lantzeko, urtero misiolari batekin harremanetan jartzen dira eta berak proposatutako egitasmoari laguntzeko denda bat zabalten dute Gabon garaian. Denda honetan hirugarren munduko jendeak egindako produktuak saltzen dituzte eta irabaziak bertara bidaltzen dituzte.

Aurtengo denda Piedad kalean (Videoteca 85 zegoen tokian) zabaldu dute eta abenduaren 22a bitartean zabalik izango da. Asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara dago zabalik eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bertan, Perun egindako hainbat produktu salgai jarri dituzte: ispiluak, jaiotzeak, pitxiak, arropak...

Produktu hauek Peruko herritarrekin lan egiten duen COPRODELI erakundeak ekarri dizkie. Salmentetatik lortzen duten %20a Kilimatrakakoek Juan Carlos Diez misiolari zumarragarrari bidaliko diote Kamerungo Douala hirira.



Juan Carlosek, gazteekin eta elbarri talde batekin lan egiten du. Elbarriek bizimodua aurrera ateratzeko aukera izan dezaten, oinetako konponketarako tailer bat egin nahi du eta dendan lortutako dirua horretan erabiliko du. Horretaz gain, Juan Carlosek gaztekeraz idatzitako liburuak eta ordenadore zaharkituak ere eskatu ditu.

Doualako elbarrituei laguntzeko eta herrialde hau pixka bat ezagutarazteko, Kilimatrakakoek erakusketa ere zabaldu dute. Itarte Etxean dagoen erakusketa hau iganderrate zabalik izango da. Bertan, Juan Carlosek Camerundik bidalitako eskulanak dira ikusgai eta salgai: ebanozko irudiak, pitxiak, koadroak...



## Iñaki Linazasororen liburuaren aurkezpena

Iñaki Linazasorok "Zumarraga nire sorlekua" liburuaren aurkezpena azaroaren 15ean Zelai Arizti aretoan. Herritar ugari bildu zituen aurkezpen ekitaldian, Iñakirekin batera, Aitor Gabilondo alkatea, Aitor Esnal kultura zinegotzia eta Arantxa Artetxe irakaslea izan ziren. Iñaki oso pozik agertu zen, liburu hau kaleratzearekin aspaldiko ametsa betetzea lortu baitu. Aurkezpenean liburuan jasotako hainbat kontakizun azaldu zituen eta une batzuetan estu eta larri eutsi zion emozioari. Bukarera, liburuan eskaintza idatzi zien hala eskatu zioten herritar ugariei.

## Kilometroak 2002 aurkeztuko da larunbatean

Larunbatean, gaueko 8etan, Urretxuko Ederrena Pilotalekuan Kilometroak 2001eko logotipoaren, lemaren eta arroparen aurkezpena egingo da. Sarrera doanekoa izango da eta Amaia Aranburuk eta Jon Balenziagak aurkeztuko duten ekitaldian Ikastolako haurrek eta Urretxu-Zumarragako Karmakros antzerki taldeak parte hartuko dute.

Hasteko, gimnasia erritmikoa egiten duten Ikastolako haurrek, logotipoa eta lema aurkezteko, espektakulu txiki bat egingo dute. Ondoren, Kilometroak 2001eko arropa aurkeztuko duen desfilearen lehenengo zatia egingo da. Ikastolako haurrak eta Urretxu-Zumarragako elkarte ezberdinetako hainbat kide pasarela gainean nola moldatzen diren ikusteko aukera izango dugu.

Desfilearen lehenengo zatia amaitu eta berehala, Karmakros antzerki taldeko kideek sketch batzuk antzeztuko dituzte. Ondoren, desfilearen bigarren zatia egingo da eta bukatzeko, antzerki taldekoek beste antzeppen bat egingo dute. Ikuskizunak ordu eta laurden inguruko iraupena izango du.

## Errepresioa salatzeke prentsaurrekoa

Joxe Jauregi, Garikoitz Oiarzabal, Ander Arrieta eta Ainhoa Osinalde ezker abertzaleko kideek azken urteotan Ertzaintzaren errepresioa jasaten ari direla eta honen aurrean bi herriotako Udalek ez dietela babesik ematen salatu zuten azaroaren 6an emandako prentsaurrekoan.

Hasteko, euren ustez, azken urteotako gertaeren jatorria zein den azaldu zuten. "1990ean errepresioa handitzen hasi zen eta arrazoietakoa bat Ertzain etxean eman zen zuzendari aldaketa izan zen. Orduetik, isun ugari jarri dira eta atxilotetak, miaketak, identifikazioak... etengabeak izan dira".



Joxe Jauregik Ezkio, Urretxu eta Zumarragako 42 pertsonak isunak jaso dituztela esan zuen. "Hauetakoa batzuek guztira 6 milioiko zigorra jaso dute. Gainera, batzuk konzentrazioetan izan gabe multatuak izan gara".

Garikoitz Oiarzabalek gertakizunen kontaketa kronologikoa egin zuen. Besteak beste, 1996ko Amalur eta Aldiri elkarteak miatu zituztela, 1997an Ertzainek, larunbata gauetan "gazteen jarraipena" egin zutela eta 1998an gaztetxean "era basatian" sartu zirela gogoratu zuen. Gertakizun hauekin batera "muntai

polizialen" bidez hainbat atxiloteta eman direla ere aipatu zuen.

Bestalde, azken hilabeteotan "lekuz kanpo" dauden "mehatxuak, erretentzioak eta galdeketak" jazo direla salatu zuten. Hori dela eta, Amalurreko eta Aldiriko telefonoak eskaini zituzten (943036075 eta 943723876), antzeko egoerak jasaten dituztenek sala ditzaten.


Bukatzeko, Ainhoa Osinalde zinegotziak, Udalak, euren ustez, urte hauetan guztietan izandako jarrera azaldu zuen. "Udala herritar guztion ongizatearen erantzulea izan beharko luke, baina herritar asko ez gara babestuak sentitzen. Aurreko legealdiko alkateak jarrera nahiko ona azaldu zuen eta interesa agertzen zuen. Legealdi honetan, berriz, alkatea eta udalbatza arduragabekeria erakusten ari dira".

### MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE  
KRUSANDEGIA  
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06  
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU

Trenaren azkeneko bidaian, Azpeitiko manifestaziora, ateratako argazkia. Argazkia: F. J. Aguado Goñiren artxiboa.



Urolako tren Zumarragako geltokian. Argazkia: Pedro Perez, A.A.F.G.

# Urolako trenbidearen ir

1986ko uztailaren 14an bere azken bidaia egin zuen Urolako trenak 75 urte beteko lituzke aurten. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Trenek "Urolako trenbidearen 75. urteurrena" izeneko erakusketa antolatu dute. Erakusketa hau azaroaren 9tik 18ra Zumarragan izan da eta herritar asko izan dira Itarte Etxean izan den erakusketa honetatik pasa direnak. Izan ere, Zumarragatik Zumaiara bidean zubiak eta tunelak etengabe igarotzen zituen tren selebre eta maitagarri honek herritar askoren bihotzean tokitxo bat du oraindik. Hona hemen "gure tren" izan zenaren historia laburra.

Zumarraga eta Zumaia artean trenbidea eraikitzeko lehenbiziko proiektua Pablo de Alzola ingeniariak aurkeztu zuen 1887an. Baina proiektu hau eta Urolako bailaran tranbia ezartzeko beste batzuk ez ziren aurrera atera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, ekimen pribatua trenbidearen eraikuntzan parte hartzeko prest ez zegoela ikusirik, berak egitea erabaki zuen. Hasierako asmoa trenbidea 1924an inauguratzea zen, baina proiektuan egindako aldaketen ondorioz, linea elektrifikatzea adibidez, lanak 1926an amaitu ziren. Inaugurazio ekitaldia 1926ko otsailaren 22an izan zen eta bertara Alfonso XIII. Espainiako erregea gonbidatu zuten.

Trenbideak zituen 36,613 kilometrotan 20 zubi, 29 tunel eta 13 geltoki zeuden. Geltokietako eraikinak estilo neokaldunean egin ziren, eta haien proiektuen egilea Ramon Kortazar arkitekto gipuzkoarra izan zen. Berrogeita hamarreko hamarkadan Olotzagako eta Agiñetako geralekuak eraiki ziren. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, Danona altzari lantegiari zerbitzua emateko, geraleku txiki bat eraiki zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ibilgailu multzo garrantzitsua erosi zuen Urolako trenbidean erabiltzeko. Bidaiariei zerbitzua eskaintzeko Siemens enpresa alemaniarrari zazpi automotore erosi zizkion. Bidaiari kotxeak, berriz, Beasaingo CAFi

Trenbidearen itxieraren aurka Urretxuko kaleetan egindako manifestazio jendetsua. Argazkia: F.J. Aguado Goñiren artxiboa.



Inazio Galdonak 26 eguneko gose greba egin zuen itxieraren aurka. Argazkia: F.J. Aguado Goñiren artxiboa.



Zumarragako alkatea eta Trenaren Eusko Museoko eta Eusko Treneko arduradunak Zumarragako erakusketan.



# ekieraren 75. urteurrena

erosi zizkion. Aldundiak hiru motatako hogeitau bat bidaiari kotxe erosi zituen. Hautako hamalau estatu espainiarreko trenbideetan ibili ziren metalezko lehenbiko kotxeak izan ziren.

Merkantzien zerbitzua egiteko, berriz, hiru automotore eta laurogei bagoi erosi ziren. Inbertsio gabezia kronikoa zela eta, material mugikor horrek zerbitzuan jarraitu zuen trenbidea itxi arte, kalitate bikaina erakutsiz.


Bailarari zerbitzu bikaina eskaintzen bazion ere, Urolako trenbidea ez zen inoiz negozio ona izan Foru Aldundiarentzat, zazpi urtetan soilik eman zituen baitzituen irabaziak.

Merkantzien garraioa oinarritzkoa izan zen Azpeitiko, Azkoitiko, Zumarragako eta Legazpiko industriaren garapenerako, Zumaiaiko portua haien produktuentzako irteera eta ikatza ekartzeko gune bikaina baitzen. Baina hirurogeiko hamarkadaren amaieran merkantzien garraioaren tokia errepideko garraioak hartu zuen. Hori dela eta, galerak sakondu egin ziren, eta, inbertsio gabezia kronikoa- ren ondorioz linea zaharkitu egin zen.

1985ean, Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen Urolako trenbidea. Honek, 1998an, tren zerbitzuaren ordezkari autobus zerbitzua ezartzea erabaki zuen. Urola bailarako Udalak eta biztanleen gehiengoa erabakiaren aurka azaldu

ziren eta itxieraren aurkako manifestazioak egin ziren. Urolako trenean interbentore zen Inazio Galdonak gose greba ere egin zuen, baina ez zuen lortu Jaurlaritzak herritarren nahia aintzat hartzea.

Egun, Urretxu-Zumarragan burdinbidea bidegorria da. Azpeitiko geltokia, berriz, Trenaren Euskal Museoren egoitza da. Linearen zati bat, Azpeitia eta Lasao artekoa, berreskuratu egin da turismorako lurrin trenak ibil daitezzen. Eusko Tren XXI Plan Estrategikoak Zumaia eta Azpeitia arteko ibilbidea berriro irekitzeko aukera aurreikusten du. Zati hau irekitzeak turismorako trenak Azpeititik Zumaia martxan jartzeko eta merkantziak garraiozko aukera emango du.



## BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



Jonmikel Intsausti

# Au Coucou des Bois

Gaüeko kantu-afaria, —aiharria zubereraz— Altxaiko poliki-roldegian amaitu berria bazen ere, *karaoke* gisan (halaxe iragarri baitzütüen neskenegüneko kantu-aiharria gure lagün xiberotarrek) kantatutako abestiak, oraindik gogoan nindizün.

Patxarana ez zen ments izan gaüeko oren ttipi horietan, eta Ostebi Taldeak musikaz eta letez lagündutako "De Trevillen"-azken *hitzak*, *Boneta eta Txapela*, *Zazpiak Oihal Batetik*, *Agur eta Ohore Eskual Herriari edo Xalbadoren Heriotzean* kanta zirraragarrien hitzen zurrunbiloa ene bürüa eta bihotza bete nündüen.

Goizanko bi orenetan, aiharria amaitu eta musika taldeko tramankulu guziak bilduak izan zütüzün. Kanpora irten güntüzün, zohardia egiten zizün. Lagün orok alkartu eta Maritxuk halako galdera igorri zeikün:

—Nahi düzüe zerbait edan? Nahi badüzüe, joanen gütüzü *au Coucou des Bois*?

—*Au Coucou des Bois*? Zer da hori? —galdetu neion jakinminez.

—Heben Urdiñarbe kantian dagoen diskoteka da. Oso frantsesa düzü, ez düe eskual musika maite bena orai zabalik dagoen taberna bakarra düzü.

Maritxuren otoan sartu eta errepede nagüsiak (jandarma antieskualdunak ez ote?) saihestuz Altxaitik Urdiñarberako bideska estu ilhonetatik ibiliz laborari-etxe hontara iritsi güntüzün, bai, Coucou de Bois delako hau laborari-etxe bat baino ez da, laborari-etxez mozo-rroturiko diskoteka zerbait erratearren. Bertan sartu eta Maritxuk erran bezala, musika eskualdunik ez zegoen. Gizon heldu samar asko barraren üngürüan, lotiren bat sofa gainean etzanda eta, bikote gazte pare bat pistan dantzan, rock-and-rollean, Iparraldeko eta Frantziako moduan, nahiz eta une hartan jotzen ari ziren musika rock-and-rollarekin zer ikusirik ez izan.

Eta patxaranaren lurrin gozoen ondoren, garagardoaren apar xurixka artean galdu nündüzün Coucou des Bois tabernaren dantzaleküan, eta gogora etorri zeiztan aurreko urteetan Xiberoan utzitako esperientzia hanitx, Urdiñarbeko gatüzainaren adiskidetasun zaharra (biba zül!), Mamen, Jose Mari eta Lourdesekin Hegiaphalian izaniko lehen gaüa, ber etxean, Jean Hegiaphal pastoral idazlearen sorleküan izkribaturiko bertso zaharrak, Maskaradetan Kabanak irakurtzen düen Pitxuren testamentüa, Ligiko zubiaren lamiak (non zira-de? oraindik ez zitaüet so egin-eta...), Kiko "Veneno" eta Pello xiberotarren eta Jean Louis-ren ondoan Santa Barbaran bideoan grabatutako elkarrizketa zentsuratua (eta horrela jarrai dezala), Maidalena gain ejerrean zelialat igorritako hitzak, "aiharria" ondo erraten ikas nezan Otsandak eta Joanak emandako ikasgai magistralak, Davant andere-

ñoaren irribarrea... eta Lagünak taldearen abesti eta letra eskualtzaleak (jarrai horrela! biba baita züek ere!). Ea züen diska hori nehoiz ikusten dügün!

Eta rock-and-rollean izan ezik, hegoaldekoon estiloan (españolok ohi dagigun bezala) dantzatu güntüzün bertan, eta musika kanbiatu eta eskual musika jarri züen, eta lagün orok agusatu güntüzün goizanko lauetako kanpai-hotsak jo arte, besteak beste, Niko Etxarten *Eskual Rock and Rolling* abestiarekilan, ... *heben gütüzü, au Coucou des Bois...* han güntüzün gu ere ber leküan, dantzan.

Hegoaldekoak, manexak, españolak, frantsesak, navarroak (Sanz jauna bezala), gabatxoak, iparraldekoak, vascoak... izen asko herri bereko, ohitura desberdineko baina sustrai bereko jendea izendatzeko. *Guraiziakin berezi arren / bakoitza bere aldetik / ezagutzen da jantzi direla / zazpiak oihal batetik...* halaxe dio abestiak. Bereziak eta guraizez.

Euskal Telebistako programetan Espainiako txutxumutxuek azaltzen diren bitartean, Iparraldeak bere minuta, (barka! orena da!) baino ez duen bitartean, iparraldekoek euskaraz ez direla mintzo barkatzen ez diegun bitartean (eta gu zertan aritu gara gaur ere, dena euskaraz ala?), *euskañola* —eta hau ez da euskara "batua"— erabiltzen dugun bitartean (gogoratu Sarasolaren ajeak!), irratiaren Espainiako *pop*-a bai baino Frantziakoa entzuten ez dugun bitartean, Zuberoako kultura Maskaradetara, Pastoraletara eta kantuetara murrizten dugun bitartean, gure sosak pezetatan eta gure telefonoak (+34) gaberik azaltzen diren bitartean (denok Espainiatik deitzen omen dugu), zurikerian eroriko gara Euskal Herriko mapa batean hodeiak eta eguzkiak marrazterakoan, eta ez ditugu gure iparraldeko senideak ezagutuko, eta ezta eurak gu ere. Hizkuntza berean mintzatzen baikara. Eta bereziak jarraitzen dugu, eta ez pentsa, guraiziak gure eskutan daude.

Igandean, bürühaundia (hots, ajea) günüela, Lapurdira joan eta Iparraldeko laborariekilan bazkaldu güntüzün Luhuson. Eta xinmax, hantxe agurtu güntüzün Maritxurengandik berak zera eskatuz —*otoi, ez ahantz!*—erran zeitan, —eman Roz-i goraintziak.

Dagün urtean berriz hara joanen gütüzü, Bexkako Maiteri bisita egitera, eta Maskaraden eta Pastoralaren so egitera, eta Maritxu eta Lagünak Taldea berriz entzutera, eta Kiko eta Pellorekilan Akerbeltzak edatera, eta Ligira itzuliren nüzü lamien xerka berriz ere ... eta apika, bai, joanen gütüzü beste berriz au Coucou des Bois. Jinen zira enekilan?

## FAMILIA BABES ASEGURUA

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.  
-HORTZ KLINIKAK.  
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.  
-HERIOTZ ASEGURUA.  
-ISTRIPU ASEGURUAK.  
-BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU  
☎ 943 72 93 69

**La Previsora Bilbaina, S.A.**  
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO  
museoari atxikituriko enpresa




# Urolako trenak 75 urte bete ditu Nola gogoratzen duzu trena?



## Ina Biain

Hondartzara trenean joaten ginela eta osabak menditik indioak jaitsiko zirela esaten zigula gogoratzen dut. Oso tren polita zen eta pena eman zidan kentzeak. Dena den, errentagarria ez bazen, normala iruditzen zait.



## Izaro Angulo

Trenak aurren 75 urte bete dituela badakit, baina ez naiz erakusketan egon. Bestalde, ezer gutxi dakit trenaz, ez bainintzen sekula ibili. Ez zen gaizki egongo autobusaren ordeztrena egongo balitz.



## Maialen Eguren

Urolakoan ez nintzen sekula ibili, baina Azpeitiko lurrunezko trenean bai. Gurasoek oso tren polita zela esan didate eta nahiago nuke autobusaren ordeztrena egongo balitz. Izan ere, bihurguneak hobeak izango lirarteke.



## Cesar Ballina

Hondartzara askotan joaten ginen Urolako trenean. Bestalde, lagunok Urretxun trenean igo eta Zumarragan jaisten ginela eta gurekin hasarrazten zirela gogoratzen dut. Kentzeak pena eman zidan.



## Jose Manuel Bereziartua

Erakusketan izan nintzen eta oso erakusketak polita iruditu zitzaizkidan. Trena ere oso polita zen eta gaizki iruditu zitzaizkidan kentzea. Izan ere, errentagarritasunaren kontua oso erlatibo da.



## Edurne eta Olatz Holgado

Oso tren polita zen eta gure ustez hankasartze handia izan zen trena kentzea. Izan ere, hondartzara joateko oso ondo zegoen eta gure ustez autobusak jarri zituztenetik jende gehiago joaten da kotxean.

# BIONA

## AROTEGIA

### Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa  
fundación

# EDURNE

## JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

# Aitor Arnaiz: "Auto hau mekan



Seat 600a, garai batean kaleetan gehien ikusi zitekeen autoa bazen ere, 1973an egiteari utzi zioten eta egun oso gutxi ikusi daitezke. Urretxu-Zumarragan bost Seat 600 soilik gelditzen dira eta hauetako bat, behin baino gehiagotan ikusiko zenuten gorri koloreko 600 ikusgarria, Aitor Arnaizena da. Hau Aitorren lehenengoa autoa izan zen eta pixkanaka autoa prestatzeari ekin zion. Horretarako, Seat 600a zuen jendearekin harremanetan jarri zen eta halako batean Seat 600 zaleen Gipuzkoako Elkarte sortu zuten. Aitor egun elkarte honetako presidentea da.

Aitorren Seat 600a 1973ko abuztuaren 3an matrikulatua dago, egun horretan atera zen azken 600a fabrikatik hain zuzen ere. Hainbeste urte dituzten autoak oso ondo zaindu behar dira eta Aitor honela hasi zen mekanikara zaletzen. "Pixkanaka konpontzen hasi nintzen eta gustatu egin zitzaizkidan. Osorik konpontzea erabaki nuen eta lan horretan ari nintzela, 600a duten Tolosako bi lagun ezagutu nituen. Duela bost bat urte, hirurok elkarrekin 600az txangoak egiten hasi ginen".

Bizkaian Seat 600 zaleen kluba zegoen eta Aitorrek eta bere lagunek Gipuzkoan beste bat sortzea erabaki zuten. "600a zuen jendea telefonoz deituz, pixkanaka jendea lortzen eta txangoak egiten hasi ginen. 1998an kluba eratu genuen eta ordutik presidentea naiz". Bazkideen hilean behin txangoak egiten dituzte eta horretaz gain, "beste leku batzuetatik ere deitzen digute joan gaitezen. Egund 72 bazkide

## "Urretxun, Zumarragan eta Legazpin zazpi lagunok dugu Seat 600a"

gaude. Gipuzkoan 600a duten ehun bat lagun daude eta pixkanaka hauek guztiak elkarteko bazkideak egitea espero dugu. Urretxu-Zumarragan eta Legazpin zazpi lagunok dugu 600a eta denok elkarteko bazkideak gara".

Oraindik 600 dexente omen daude, baina lagun berdinen eskuetan. "Desguazetean oso gutxi aurki daitezke, beraz, aukera dagoen bakoitzean auto bat erosi beharra dago. 7 auto dituen jendea ezagutzen dut. Etxean bi Seat 600 ditugu, aitarena eta nirea, baina biak martxan ditugu. Dena den, bi kotxe hauek gordetzeko

erabiltzen dugun garajearen ordezko pieza pila dugu".

Dena den, garestiago bada ere, pieza berriak lor daitezke. "Aletak, atepak, motore berria... lor daitezke. Bartzelonan, gainera, pieza orijinalak lor daitezke oraindik. Izan ere, 600ak bertan egiten ziren eta oraindik garai hartan egiten ziren ordezko piezak aurki daitezke. Pieza hauek gorde zituztenak ferietara joaten dira saltzera. Bestalde, kopiak ere aurki daitezke".

Aitorrek urte hauetan guztietan ordu asko eman ditu bere kotxea prestatzen. "Askotan lanetik 7etan atera, 7:30etan garajearen sartu eta konturatzerako gaueko 11ak dira. Beti dago zereginen bat: bi piezekin bat egin kotxearen pieza hori izorratzen denean ordezkoa prest izateko... Puskatutako piezak ez ditugu sekula botatzen. Bestalde, klubeko artean piezak trukatzeko ditugu".

# o baten antzekoa da”

Piezak trukatzuz eta erosiz, Aitorrek eta bere aitak, bi 600 prestatzea lortu dute. "Aitarena konpondu genuen lehenengoa da eta jatorrizko itxura du. Nirea, berriz, konpetizioetakoak bezala prestatu dut. Lehenago, auto hauek lasterketetan parte hartzen zuten eta argazkietan oinarritu naiz nire kotxea prestatzeko. Autoa karrozeroari eraman eta zer nahi nuen azaldu nion. Atzeko eta aurreko aletak irekita dauzka, paratxokes berezia du, aurrean beste erradiadore bat du, eserlekuak eta bolantea aldatu nizkion..."

Aitorrek bere autoa ia osorik aldatu du. "Nire autoa gaintzeko 600en oso ezberdina da, nire gustura moldatu bainuen. Niretzat hau oso garrantzitsua da. Behin mutil bat telefonoz deitzen aritu zitzaidan eta nire kotxean zer aldaketa egin nituen azaldu nion. Azkenean nire autoaren ia berdina prestatu zuen eta hori ez zait oso zuzena iruditzen".

Autoaren itxuraz gain, motorra ere zertxobait aldatu du Aitorrek. "Jatorrizko motorena du, baina aldaketa txiki batzuk ditu. Dena den, beste motore bat lortu dut eta negu honetan hau jartzeko asmoa dut. Motore honek jatorrizkoaren zaldien bikoitza du: 60. Hori dela eta, 160-170 kilometro orduko abiadura hartuko du".

Abiadura horretan doan Seat 600 bat ikustea harrigarria izango da... "Orain autoak 140 kilometro orduko abiadura hartzen du eta Donostiara bidean nahiko auto aurreratzen ditut. Batzuei ez die grazia handirik egiten 600 batek aurreratzeak..."

Aitorren ustez, autoa prestatzeko lanak ez dira sekula amaitzen. "Auto hau bi aldiz berritu dut jada. Lehenengoz berritu nuenean ez nekien oraindik gehiegi mekanikaz eta bigarren berritze lana egin dudanean lehenengoan egindako akats guztiak agerian gelditu dira. Horretaz gain, beti bururaten zaizu zer edo zer aldatu behar diozula: hagu berriak jartzea dela, eserlekuak aldatzea dela... Beti daude gastuak. Auto honetan orainarte milioi eta erdi inguru gastatu dudala uste dut".

## Aitorrek bi aldiz berritu du kotxea jada eta orainarte milioi eta erdi pezeta inguru gastatu duela uste du

Auto hauek ondo zaintzeak sekulako lana eta gastua suposatzen du, baina lan honek guztiak ematen du aldi berean poztasunik handiena. "Egun jendeak sekulako kotxeak ditu, baina hau beste mundu bat da. Mekano baten antzerakoa da: kotxe txikia da eta zu arduratu zaitezke bere mantenimenduaz. Norbera bere kotxearen mekanikaz eta prestaketaz arduratzeak ilusioa egiten du. Bestalde, urtean hainbat topaketa egiten ditugu eta topaketa hauek lagun asko egiteko aukera ematen dute".

Hainbeste lan egin ondoren, ez omen luke bere Seat 600a salduko. "Eskaintzaren bat izan dut eta ezetz esan diet. Egunero erabiltzen dudana kotxea salduko nuke, baina hau ez. Nire lanaren emaitza da eta kotxe hau galduko banu oso nirea den zer edo zer galduko nuke".

## ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77

URRETXU

## MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA

<p><b>HAR GOR</b> ILEAPAINDEGI MIXTOA Nekolalde, 3 baxua ☎ 943 72 44 42</p>	<p><b>HARGOR</b> Artisautza - arropak - opariak Nekolalde, 1 ☎ 943 72 56 58</p>
---	---

	<p><b>BAPRI</b> ANIMALIADENDA Txoriak, arrainak, katuak, dordokak</p>
<p>Urdaneta, 3</p>	<p>☎ 72 61 13 ZUMARRAGA</p>

	<p>Legazpi, 5 ☎ 943 726274 ZUMARRAGA</p>

# Balen Tramon, Putz aldizkari satiriko "Euskarazko aldizkarien a

Balen Tramon arrasatearrak 17 urte daramatza Lizeoan historia eta geografia klaseak ematen. Baina, eguneroko lanaz gain, prentsa alorrean hainbat ekimen ere aurrera atera ditu. Lizeoan Aldizkaskarria aldizkaria bultzatu zuen duela hamar urte inguru eta ondoren Ostiela! aldizkaria sortu zuen beste lagun batzuekin batera. Duela bi urte Ostiela!-ko hainbat kidek aldizkari hau utzi eta Putz aldizkari satirikoa kaleratzen hasi ziren. Hamaika ale kaleratu dituzte jada eta azkenekoak zeresan ugari eman du. Elkarrizketa honetan Balenek aldizkariaren nondik norakoak azaldu dizkigu, baina Bin Laden non demontre dagoen jakin nahi baduzue, Urki liburudendan eta Osaba, Intrepid Fox eta Aldiri tabernetan saltzen den Putz aldizkaria erosi beharko duzue.

## Balen, zer saltsatan ibili zara urte haue- tan guztietan?

Arrasatearra naizen arren, Gasteizen bizitzen izan naiz, hemen lanean... alde guztietan egon naiz, baina inon ez. 20 urte ingururekin AEKn irakasle hasi nintzen, Lizeora etorri nintzen garaian musika talde bat izan genuen, Ostiela! sortu genuen, gero Putz... Alde guztietan muturra sartzen ibili naiz, baina gutxitan aritu naiz buru-belarri zer edo zertan.

## Zer diozu ikasleez?

Gazteekin oso gustura nabil, baina hezkuntza munduak bere alde txarrak ditu eta Ikastolan gehiago oraindik. 2. mailako funtzionariak garela esan ohi dut. Lau katu gara eta alde guztietan sartzen ibili behar izaten gara. Nahiago nuke gauza batean aritu eta hori ondo egin. Hori dela eta, duela 11 urte, Euskaraz Bizi kanpaina zela eta, Aldizkaskarria sortzea erabaki genuen eta horretan konzentratzea erabaki nuen. Helburua euskaraz denetik egin daitekeela erakustea zen. Aurten lantalde polita dugu eta ikasleek Aldizkaskarria oso gustura egi- ten eta irakurtzen dutela uste dut.

## Aldizkarigintza oso gustukoa duzu non- bait...

Aldizkarigintza betidanik gustatu

izan zait eta Arrasateko lagun minei aspaldi aldizkariaren bat sortu behar genuela esaten niela gogoratzen dut. Duela 6-7 urte lau xelebre elkartu ginen eta Ostiela! sortu genuen. Baina xelebre xamar- rakk ginenez, taldeak sortu eta berehala eztanda egin zuen. Hiru urte jasan ondoren, talde- tik atera nintzen eta proiektu berri batean lanean hasi ginen. Halaxe, duela bi urte, Putz sortu zen. Jada eszedentzia eskatzeko gogoz naiz...

## Lan handia ematen al dizue?

Oso zaila da honelako aldizkari bat aurrera ateratzea.


Beti esaten dudán moduan, artistak jenoak dira, baina ez dago nork aguantatuko dituen. Nik, ordea, gehiago ikusten dut nire burua eguneroko xagu lana egiteko, nahiz eta zer edo zer idazten dudán. Bestalde, norberak egiten dituen aurreikuspenak ez dira beti bete- tzen. Dozena bat laguneko talde finko bat lortu nahi genuen,

"Freskoagoa izango  
zen zer edo zer egin  
nahi genuen:  
sorkuntzari,  
umoreari... aukera  
emango ziona"

baina sei lagun hasi ginen eta hiru gelditu gara. Eskerrak kolaboratzaileek (Paddy Rekaldek, Asier Serranok...) sekulako laguntza eskaintzen diguten eta moralki oso babestuak sentitzen garen. Bi urte oso txar eman ditugu, baina emaitzare- kin oso gustura gaude eta hori da garrantzitsuena.

## Zein helbururekin hasi zineten Putz kaleratzen?

Nire ustez, Gara eta Egunkariarekin, egunkariaren esparrua oso ondo betea dugu. Baina aldizkariaren alorre- an hutsuneak daudela uste dugu, hainbat esparru ez dira jorratzen. Aldizkariak egon badaude eta aldizkari serio bat egiteko guk baino ahalmen handiagoa dute, baina bide markatu batzuk ere bai. Guk freskoagoa



# aren sortzailea "lorrean hutsuneak daude"


izango zen zer edo zer egin nahi genuen: espontaneitateari, sorkuntzari, umoreari... aukera emango zion aldizkari bat. Badirudi euskaraz irakurri behar duzuna ia-ia lanagatik eta oso serio irakurri behar duzula. Gure asmoa honi aurre egitea zen: gauza arinagoa eskaintzea, baina ez azalekoa.

## Beste aldizkari batzuetan oinarritu al zineten zuena sortzeko?

Estetika, formato... aldetik antzerako beste aldizkari batzuk aipatu ditzakegu. Baina Espainian ere ez dago gure ereduaren duten aldizkaririk. Putz hitz batera mugatu behar bagenu, aldizkari satiriko bezala definituko nuke. Baina ez da hori bakarrik, satiraz aparte beste gauza batzuk baititu. Sexu kontuak, adibidez, beste inon baino gehiago ateratzen dira. Beti ere puntu alai eta ludiko batekin. Sexua ez da derrigor pornografikoa edo didaktikoa izan behar. Nik neuk, noizbehinka, reflexio puntu batzuk ipiniko nituzke, aldizkari batek egunkari batek baino aukera hobea eskaintzen baitu honetarako.

## Aldizkariak aldaketak izan al ditu sortu zenetik?

Azalaren diseinua eta maketazioa hobetzen joan gara, baina eduki aldetik ez dut uste aldaketa handirik izan duenik. Dena den, kolaborazioak gero eta errazago lortzen ditugu eta horrek aukeratzeko eta aldizkari hobea egiteko aukera eskaintzen digu. Azkenekoa arrakasta handiena izan duena da. Zergatik? Txiripaz portada oso bixia egin genuelako eta Bin Ladenen kontu honen harira asmatu egin dugulako. Fagorretik kargu hartu digute azalean euren irudia azaltzen delako! Baina ez ditugu bete behar diren hamar agindu. Hori bai, Euskal Herrian bizi gara eta euskaldunak gara eta bertako arazoaren aurrean ez dugu neutroak izan nahi.



Zeresan ugari eman duen Putz aldizkariaren azkeneko azala.

## Zein da Ostiela! eta Putzen arteko alde nagusia?

Nire ustez Ostiela!-k hiru akats nagusi zituen: aldizkari horiegia zen, diseinua ez zen erakargarria eta "arkeologiko" xamarra zen. Lehengo kontuak, euskal kultura eta literaturaren harribitxiak... sartzen zituen. Hau oso ondo dago, baina guk gaurkotasan gehiago izango zuen zer edo zer egin nahi genuen. Egungo gaiekin lotuagoa egongo zen aldizkaria.

## Ba al dago antzekoak diren honelako bi aldizkarirentzat merkaturik?

Baita gehiagorentzat ere... Baina

promozioa eta zabalkundea landu egin behar dira eta guk horretan izan dugu akats nagusia. Hurrengo alerako Aitor Gorosabeli eta Nortoni elkarrizketa egin diegu eta Nortonek ez zuen aldizkaria ezagutzen. Gutxienez aldizkaria Euskal Herria osoan ezaguna izatea lortu behar genuke. Bestalde, Ostiela! eta Putz antzeko esparruan borrokatzen badira ere, ezberdinak ere badira. Hori dela eta, baten irakurlea bestearena ere izan daiteke. Dena den, Ostiela!-ko Jon Arano eta Diego, gure editorea, bi aldizkariak bat egiteko elkarrizketak izaten ari dira azkenaldian. Baliteke urtariletik aurrera bi aldizkariak bat egitea.

# Oihane Toledo, Urretxuko sopranoa

Oihane Toledo soprano urretxuarrak eta Josu Okiñena pianojoleak aurtengo Urretxuko Udazkeneko Musika Zikloko azken emanaldia eskainiko dute abenduaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, Urretxuko San Martin de Tours elizan. Musika emanaldi hau oso berezia izango da, Oihanek lehenengoz errezitaldi osoa kantatuko baitu eta bere herrian gainera. Hori dela eta, Oihanerekin hitz egiten izan gara eta orainarte egindako lana, kontzertu hau nola prestatu duen eta etorkizunerako zer asmo dituen azaldu dizkigu.

## Nolatan hasi zinen musika munduan, Oihane?

Gauzak zertan ari zaren konturatu gabe hasten dituzu, ia klaseko guztiak joaten ginen solfeora, eta konturatu gabe pixkanaka mundu honetan sartu nintzen. Bokazioa bada, txikitatik gustatzen zaidalako, baina ez "quiero ser artista" esaten nuelako. Urteak pasatzen diren heinean sakondu egiten duzu, bide berriak irekitzen zaizkizu, erabakiak hartu behar dituzu... eta momentuz honaino heldu naiz.

## Zergatik erabaki zenuen kantatzea?

Pianoa ikasten aritu nintzen, baina kantuak gero eta dedikazio gehiago eskatzen zidan eta aukeratu beharra nuen. Betidanik abestea gustatu izan zait eta niri errazagoa iruditzen zait. Gero koruan abestea edo bakarleri gisa aritzea ere aukeratu behar izan nuen. Bakarka aritzea aukeratu nuen ikasten jarraitu nahi nuelako, baina pena handia eman zidan korua uzteak. Izan ere, abesbatzan zaudela, errazagoa da gauzei aurre egitea bakarrik baino.

## Non ibili zara ikasten?

Oviedon lau urte eman ditut, Hendaian beste bat eta egun Donostian ari naiz bertako irakasle batekin. Bestalde, toki ezberdinetan hainbat ikastaro egiten ditut. Orainarte musika ez da uni-

bertsitate ikasketa izan, baina orain Donostiako Kontserbatorioko ikasketak unibertsitarioak izango dira. Europako beste herri batzuetan askoz ere lehenago izan da hala, orain hemen da eta Portugalen eta Grezian aurki izango dela suposatzen dut...

## Ikasketak bukatu dituzula esan al daiteke?

Ikasketak, berez, bukatu ditut, baina oraindik ez naiz iritsi naitekeen tokira. Hori dela eta, ikastaroak egiten jarraitzen dut. Orain Donostian nabil Almudena Ortegarekin. Bestalde, Urretxun nirekin aritu behar den Josu Okiñenarekin ere asko ikasten ari naiz. Ez ahots-teknika, baizik eta erreperitorioa. Berari esker beste maila bat aurkitu dut. Dena den, musika kontu honetan beti berdina gaude: azken urtea garrantzitsuena izan dela dirudi beti. Gainera, nahiz eta norberaren mailarik onenera heldu, estilo, autore, eta obra berriak ikasten jarraitu beharra dago.

## Noiz uste duzu helduko zarela zure maila gorenera?

Emakume baten ahotsaren unerik onena 25 eta 35 urte bitartean dela esaten dute. Teorian urterik onenak orain helduko zaizkit, beraz; orainarteko intentsitateaz

**“Euskara normalizatu nahi badugu, alor guztietan bultzatu behar dugu”**

lanean jarraitzen badut behintzat. Dena den, oso lan gogorra da eta ekonomia alde-tik ez dizu egonkortasunik eskaintzen. Hori

dela eta, utziko ez dudala badakidan arren, nekatzea eta intentsitatea jaistea gerta daiteke.

## Nondik nora ibili zara abesten orainarteko?

Kimetsen hasi nintzen, ondoren Gipuzkoako gazte abesbatzan kantatu nuen eta Europako gazte abesbatzan ere aritu nintzen. Bakarka, berriz, ez dut sekula errezitaldi oso bat eskaini. Lehenengoa

**Oihanek abenduaren 16an, Udazkeneko Musika Zikloaren barne, lehenengoz errezitaldi osoa kantatuko du**

Urretxun abenduaren 16an kantatuko dudana izango da eta pixka bat beldurtuta nago. Orainarte errezitalen zatiak soilik abestu ditut bakarka. Dena den, noizbait izan behar zen lehenengo aldia eta guk eskaini genuen geure burua, gainera, Urretxun kantatzeko. Batere eragozpenik ez ziguten jarri eta zikloan bertan beranduago abestuko dugu hobeto datorkigulako. Oso ondo portatu dira gurekin.

## Kantua ikasi duzun Urretxuko soprano bakarra zara eta...

Jende askok Urretxuko Ainhoa Arteta naizela uste du, baina konparaketak ez du ez hankarik ez bururik. Bera gorengo puntan dago eta ni hasiberria naiz. Jendeari arraroa egiten zaio herriko neska bat, berarekin poteatzen duena, berarekin ikastolara joan dena... sopranoa izatea eta Euskaldunan kontzertuak ematen hasiko naizela uste du. Hau Tolosa oso gertu dagoelako eta oso soprano gutxi daudelako da. Baina hau eboluzio kontua da. Musika eskolak oso urte gutxi ditu eta ni hortik atera naiz.



Seguru hemendik urte batzuetara abeslari gehiago aterako direla.

**Nolakoa izango da Urretxun eskainiko duzun emanaldia?**

Lehenengoz nik ikasi dudan estiloko abestuko dut. Izan ere, lehenago ere herrian kantatua naiz, baina beti txistulariekin, bandarekin... izan da. Ahotsa landu dudala erakusteko aukera izan dudan arren, esan bezala, ez dut nik landu dudan esparruan kantatu. Ez dakit jendeari gustatuko zaion... Izan ere, ordubetea tentsioa eta jendearen arreta mantentzea zaila da. Entzuleek ahots bakarra ordubetez gustura entzun dezaten, aspertu gabe, emanaldia oso ondo landu behar da. Hori dela eta, kontzertu honetan autore askoren lanak, Aita Donostiaren euskarazko abesti batzuk... sartu ditugu. Hau oso garrantzitsua da, oso gutxi ezagutzen den euskal musika klasikoa da eta gure lana da hau ezagutaraztea. Euskara normalizatu nahi badugu, alor guztietan bultzatu behar dugu.

**Aurrera begira zer asmo dituzu?**

Euskal musika klasikoaz osatutako kontzertu bat prestatzeko eta errezitaldi hau saltzeko asmoa dugu Josuk eta biok. Oraindik izen bat ez dudanez, Euskal Herri mailan saldu daitekeen errezitaldi orijinala eskaini nahi dugu. Gainera, euskaldunak izanik, bertako musikagileen lanak bultzatu behar ditugula iruditzen zaigu. Estreinatuta ere egin ez den euskarazko musika zoragarria dago. Bestalde, aurrerago kantu sariketaren batera aurkezteko asmoa dut.

**Lehiaketetara aurkeztea ezinbestekoa al da aurrera egiteko?**

Aurrera egiteko zorte faktorearen garrantzia handia da. Toki egokian egon behar duzu, zuzendari baten gustukoa izan behar duzu... Lehiaketetara irabaztera baino, entzun zaitzaten zoaz. Izan ere, bertara musikoak, managerrak... joaten dira eta norbaiten gustukoa izatea suerta daiteke. Ikastaroak ere oso garrantzitsuak dira adituek zu entzun eta aholkatu zaitzaten.

Muntaje e Instalaciones Electricas  
**HERCE**  
 Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
 Enpresa mantenua  
 Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
 Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
 Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Belarretu*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
 ZUMARRAGA

*belarretu*

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780  
 URRETXU

*foto luz*  
*Argazkilaria*

Legazpi, 5  
 ☎ 72 11 55  
 Zumarraga

Labeaga, 43  
 ☎ 72 16 81  
 Urretxu

Kale nagusia, 5  
 ☎ 73 04 19  
 Legazpi

\* ZURE ESTUDIOA \*

**ARRAINDEGI**  
 baterako pertsona bat  
 behar da  
**BERGARAN**



☎ **607 66 02 44**

# Santa Lutz

## Ganadu Lehiaketa

Urdaneta hiribidean izaten den zaldi abere lehiaketak bi atal izaten ditu. Haragitarako zaldi abereen lehiaketan, bretoi arrazakoek, ardandarrek eta pertxeroiek parte har dezakete. Baita arraza hauen eta pottoka arrazakoen arteko nahasketek. Bestalde, pottoka arrazakoen lehiaketa ere izaten da. Lehiaketa bakoitzean zaldi, behor eta urteko moxal onenari ematen zaio saria Kalebarren-Areizaga plazan 13:30etatik aurrera.



## Arabako Errioxako Ardo Lehiaketa

Urretxuko Iparragirre plazan, Arabako Errioxako Ardo Feria eta Lehiaketaren hamaikagarren edizioa izango da. Bodega bakoitzak 2000ko uztako bi botaila aurkeztuko ditu lehiaketara. Abenduaren 12an, 18:30etan, antolatzaileek botaila horiek jasoko dituzte, bodegak jendeari saltzeko eta kontsumorako jarrita izango duen txosnatik. Antolatzaileek eurek aukeratuko dituzte lehiaketarako botailak. 20:00etan emango dio epaimahaiak hasiera dastaketa lanari, eta ondoren erabakia jakinaraziko dute. 18:30etatik aurrera bodegek jarritako postuetako ardoa dastatzeko aukera izango dugu eta 20:00etan Udaletxeko batzar areto nagusian izango den lehiaketako dastaketa jendearentzako irekia izango da. Santa Lutzi egunean ardo feria 9etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara zabalik izango da.

Urteroko moduan, aurten ere inguruotako eta Euskal Herri osoko nekazariak eta abeltzainek euren barazkiak, fruituak eta abereak salgai izango dituzte Santa Lutzi egunean. Hauetako askok, gainera, Urretxu eta Zumarragan antolatzen diren lehiaketetan parte hartuko dute. Abenduaren 13an, postutik postura, zer ikusten ari garen ere ez dakigula ibiltzen garen kaletarrok, egun horretan lehiaketak daudela badakigu, baina ez dakigu oso ziur zeintzuk diren lehiaketa hauek eta zeintzuk diren bakoitzaren ezaugarriak. Hona hemen Santa Lutzi ferriako lehiaketen gida labor bat.





# feria 2001

## Zumarragako Barazki, Fruta eta Errezil sagar Lehiaketa

Zumarragako Euskadi enparantzan barazki, fruta eta errezil sagarren lehiaketa izango da. Partehartzaileek nekazaritza esplotazio erregistroaren agiria aurkeztu behar dute. Barazki lehiaketan gutxienez 6 barazki mota eta bakoitzetik bi kilo aurkeztu behar dira, fruta lehiaketan ere gutxienez 6 fruta mota eta bakoitzetik bi kilo eta errezil sagar lehiaketan gutxienez 10 kilo ekarri behar dira. Epaimahaikideek kalitatea (tamaina, itxura, kolorea...), aurkezteko era eta aniztasuna hartzen dituzte kontuan. Sari banaketa Kalebarren-Areizaga plazan izaten da 13:30etatik aurrera.



## Oilasko Lehiaketa

Oilasko lehiaketa ere Kalebarren-Areizaga plazan izaten da. Lehiaketa honetan Euskal Herriko baserrietako larreetan ibiltzen diren euskal arrazako eta arraza arrunteko oilaskoek parte hartzen dute. Euskal arrazako oilaskoen lehiaketan marradunek, gorriek, lepoailek, beltzen eta zilarrek parte har dezakete. Partehartzaileek gehienez 3 bikote aurkez ditzakete eta hauek 6 hilabete eta 6 kilo baino gutxiago izan behar dute. Epaimahaikideek oilaskoen pisua, luma-ren kolorea, distira, tamaina, itxura eta arraza nahi mota bakoitzaren ezaugarri bereziak hartzen dituzte kontuan. Arraza arrunteko oilaskoek, berriz, gehienez 4 hilabeteko adina eta 8 kiloko pisua izan behar dute. Bikoterik onena izendatzeko pisua, itxura eta haragitarako gaitasuna hartzen dira kontuan.

## Urretxuko Barazki, Fruta eta Errezil sagar Lehiaketa

Urretxuko Gernikako Arbola barazki eta fruta lehiaketa izaten da. Atal bakoitzeko partehartzaileek gutxienez 6 mota aurkeztu behar dituzte eta bakoitzetik 2 kilo gutxienez. Epaimahaikideek kalitatea (tamaina, osasun egoera, itxura, kolorea...), aurkezteko era eta aniztasuna hartzen dituzte kontuan. Urretxuko lehiaketaren sari banaketa ere Kalebarren-Areizaga plazan izaten da 13:30etatik aurrera.



## Kapoi Lehiaketa

Kalebarren-Areizaga plazan kapoi lehiaketa izaten da. Lehiaketan bi atal izaten dira: euskal arrazako kapoiena eta arraza arrunteko kapoiena. Euskal arrazako kapoiak marradunak, gorriak, lepoailak, beltzak eta zilarrak izan daitezke. Kapoiak binaka aurkeztu behar dira, gehienez, 3 bikote, eta 12 hilabete baino gutxiagokoak izan behar dira. Bikoterik onena izendatzeko epaimahaikideek kapoien pisua, lumen kolorea, distira, tamaina, itxura eta arraza nahiz mota bakoitzaren ezaugarri bereziak hartzen dituzte kontuan. Kapoi arrunta merkatuetan aurkitzen den luma gorrikoa izaten da eta epaimahaikideek bere pisua, itxura eta haragitarako duten gaitasuna hartzen dute kontuan.

# 2001eko Santa Lutzi Feriaren egitaraua

## Abenduak 5

- 19:00.- Juan de Lizarazu erakusketa aretoan ASPACEREN ZUME lanen erakusketari hasiera ematea.  
 19:30.- Itarte Etxean zabalduko da JOSE LUIS AGIRREren "SANTIAGO BIDEAN" AKUARELA lanen erakusketa.

## Abenduak 9


- 19:30.- Zelai-Arizti Aretoan LUZIO GABIRIA ALUSTIZAREN OMENEZKO XVI. BERTSO JAIALDIA.  
 Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Joxe Agirre, Jon Maia, Igor Elortza eta Nerea Elustondo.  
 Gai jartzailea: Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskola.

## Abenduak 12

- 18:30.- Iparragirre plazan, ERRIOXA ARABARREKO ARDO AZOKAri hasiera ematea.  
 20:00.- Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusian, ARDO LEHIAKETARA aurkeztutako ardoak dastatzen enologo ospetsuak izango ditugu, eta dastatu ahala azalpenak emango dizkiete ikustera joandako herritarrei.  
 22:00.- Ederrena pilotalekuan, afizionatuen arteko PILOTA PARTIDUAK.

## Abenduak 13

- 8:00etatik 14:00etara:** Urdaneta hiribideko feria tokian, ZALDI-AZIENDA NAHIZ BESTELAKO ABEREEN FERIA ETA LEHIAKETA. NEKAZARITZAKO TRESNEN FERIA La Salle - Legazpi ikastetxeko patioan izango da.  
**AZOKA BEREZIAK:** Gernikako Arbola plazan: FRUTA eta BARAZKI LEHIAKETAK, eta Gipuzkoako Eztizaleen Elkarteak antolatutako EZTI LEHIAKETA ere izango dugu, eta EUSKAL HERRIKO JAKIAK SALGAI izango dira (eztia, ogia, gazta, taloak, e.a.).  
 Euskadi enparantzan ERREZIL SAGAR, FRUTA eta BARAZKI LEHIAKETAK izateaz gain, ESKULAN ERAKUSKETA eta EUSKAL HERRIKO JAKIAK SALGAI izango dira (eztia, ogia, gazta, taloak, e.a.).  
 Kalebarren-Areizaga enparantzan OILASKO eta KAPOI LEHIAKETAK.  
**13:30.-** Kalebarren-Areizagan oilasko, kapoi, fruta, barazki, errezil sagar, ezti, ardo eta ganadu lehiaketetako SARI BANAKETA.  
**Egunean zehar:** Iparragirre plazan ARDO AZOKA. Errioxa Arabarreko upategiek hartuko dute parte, eta 2000ko uztako ardo bikainak dastatu nahiz erosteko aukera ere ematen du azoka honek.  
 Goizean zehar, MOXAL ERREA dastatzeko aukera.  
 Zelai Arizti pilotalekuan, berriz, ZUHAITZ LANDAREAK eta abar salgai.  
 Urretxuko Iparragirre kalean, Zubimusu plazan eta Zumarragako trenbide gainean ESKULAN ERAKUSKETA eta salmenta.  
**9:00.-** Urretxuko TXISTULARI taldearen kalejira; Iratzarri dultzaineroak ere kaleetan zehar izango ditugu.  
**9:00.-** Zumarraga eta Urretxuko Santa Lutzitako VI. ARGAZKI RALLYA.  
 Lehiakideak: nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte.  
 Gaia: Santa Lutzitako feriaren inguruko sei gai.  
 Nola parte hartu: abenduaren 13an, goizeko 9etatik 10ak arte Urretxuko Kultur Etxera azalduta.  
**10:00.-** Tolosako dulzaineroen DIANA.  
 Egunean zehar.- Kalejiran ibiliko dira Zumarraga-Urretxuko trikitaliak.  
**10:30 - 12:30:** "Secundino Esnaola" musika eskolako trikitalarien KALEJIRA Zumarraga eta Urretxuko kaleetan zehar.  
**11:30.-** Zumarragako Musika Bandak eta "Antzinako Ama" Txistulari Bandak elkarrekin egingo duten KALEJIRA.  
**12:30.-** Ederrena pilotalekuan HERRI KIROL SAIOA. Aizkolariak: Mindegia Arrospideren aurka, zutik jarritako enborra botatzen. Olasagasti eta Nazabal, elkarren kontra arituko dira, zutik jarritako enborra botatzen.  
 Arrospideren eta Mindegiaren arteko lehia bi metroko enborra ebakitzen.  
 Olasagasti-Elorriaga bikotea Nazabal eta Lopez bikotearen aurka, 60 ontzako zortzina ebakitzeko.  
**16:30.-** Ederrena pilotalekuan PROFESIONALEN ARTEKO PILOTA PARTIDUAK.  
**17:30.-** Euskadi enparantzan IDI PROBAK. Probalariak: URRUZI, BELARRETA, ELORRIAGA eta AIZPURU.  
**Ondoren.-** Euskadi enparantzan idi probetako SARIAK BANATZEA.  
**19:00.-** Kalebarren-Areizaga enparantzan dantzaldia EGAN taldeak soinua jota.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA  
 Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



**Aitor**, etziozu gehiago Jonmikeli adarra jo, egunen batean bere etxera joan beharko zara lotara eta!



**Amaia**, oilar bat buru gainean jarri zaizula dirudi, neska! Hori da hori motots xelebrea jarri dizutena! Zorionak!



**Ander**, aurren gaizki portatu zara eta Olentzerok ikatza ekarriko dizun beldur zara nonbait! Zorionak!



**Andrea**, esaiozu amari Txillida imitatu nahi badu "artelanak" bere buruan egin ditzala! Zorionak!



**Arantza**, hori da hori irrifarrea... George Clooneyrekin medikutara jolasten ari al zara? Zorionak!



**Beñat**, alaitu ezazu aurpegia, aurren ere Olentzerok zer edo zer ekarriko dizu eta! Zorionak!



**Bere**, hori da hori aurpegia... gaur ere denek ihes egin al dizute argazki kamera ikusi bezain pronto? Zorionak!



**Danel**, ea Olentzerok aitari flasha oparitzen dion, "Los Otros" filmako protagonista dirudizu eta! Zorionak!



**Eli**, zuenean ere katekistek sekulako iskanbila sortzen al dute? Eskerrak negoziarako onak diren...



**Idoia**, zuretzat zer idatzi ez dakigunean idazten dugun tontakeria: zapia buruan eta ibili munduan!



**Itziar**, badakigu unibertsitate lege berria oso txarra dela, baina etzazu negarrik egin neska! Zorionak!



**Jean Claude**, zure filmetako etsaiek egurra ematen zenielako uste genuen ikusten zizutela bel-tzak!



**Jose**, ez dirudi urteen joanak zugar eraginik duenik! Beti argazki berdina ekartzen digute... Zorionak!



**Juan Carlos**, Kilimetrakako gazteak egiten ari diren lana ikusita, ez da harritzekoa zu horren irrifartsu izatea!



**Lucia**, lotarako ere ez al duzu kentzen buruko zapia? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Maritxu**, oraingoan ere Eliren kafetegian! Ez al zarete jada zahar xamarrak hainbeste "txokolatada" egiteko?




**Mikel**, oso zoriontsu ikusten zaitugu. Baina... argi ibili esku horrekin, lepotik oso gertu duzu eta! Zorionak!



**Mila**, hori da hori pikara aurpegia! Gaurkoan ere kartatan tranpa egin al diezu gainontzeko katekistei?



**Argi**, argi ibili bi hauekin, tabernetan eskumuturrekoak saltzen ibiltzen den "Josemari"aren oso lagunak dira eta! Gainera, behin lehengusina txikia Takolo, Pirritx eta Porrotx ikustera eraman zuten! Eskerrak Charles Bronson eta Torrente jada atzetik dituzten...



**Ander**, utziozu karrozak egiteari, zu nahikoa karroza bazara eta! Ea argazki berriago bat ekartzen diguzun! Zorionak!



Gezurra badirudi ere, bi tipo hauetako bat ezkondu egin da eta bestea aurki ezkonduko da. Hori bai, ezkondu zenak etzuen bere metro eta erdiko kono naranja buruan jantzi ezkontza egunean eta besteak ez dugu uste Athletic-en ezkutuaren tatuajea begibistan eraman-go duenik! Zorionak Iste eta Osi!



**RENEDO argazkiak**  
 Jauntzetak • Bataioak • Ezkontzak  
 Labeaga 52-54 F URRETXU  
 ☎725682 ☎722292



**MAPFRE**  
**Aseguru etxea**  
 S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
 ☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
 Bide-Zar 5. ZUMARRAGA  
 943 72 13 70



**UROLA**  
**ELEKTRATRESNAK**  
 ☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
 Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

# Emakumeen saskibaloia

Rivaldok 1.000 milioi irabazten ditu urtean eta kezu da; emakume futbolarien %90ak ez du pezeta bat bera ere irabazten. Lance Armstrong-ek 40 milioi pezetako saria izan zuen Frantziako Tourra irabazteagatik; zein sari jaso zuen Joane Somarribak gauza beragatik? Honelako konparaketen zerrenda, lotsagarria izateaz gain, amaigabea da. Emakumeen kirolak ez du inolako babesik, eta honela oso zaila da aurrera jarraitzea. Emakumeek sarritan ez dute ezkin kirol praktikatzeko aukerarik izaten. Zorionez, Urretxu-Zumarragako kirol talde ezberdinek behar hau asetzeko ahaleginetan ibili izan dira beti. Orain arte, neskek bai futboleant, bai eskubaloian eta baita areto-futboleant ere aritzeko aukera zeukaten; orain saskibaloian ere jokatu ahal izango dute.



Aitor Bastarrika da Goierri K.E.-ak sortu berri duen talde honetako entrenatzaileetako bat, berarekin mintzatu ginen: "Duela urte batzuk, emakumeen saskibaloia taldea sortzeko saiakera bat egin zuen Goierri K.E.-ak, baina azkenean posibilitate hori ezerezean geratu zen. Legazpik, emakumeen saskibaloia taldea izan du azken urte hauetan, eta horregatik hemengo neska dexente hara joan izan dira jokatzera. Orain gauzak zeharo aldatu dira, onerako beti".

Aitorrek 29 urte bete ditu eta horien erdiak kantxetan eman ditu. Jokalari bezala Goierri eta Urtek-en aritu ondoren, ikasketek saskibaloia uztera derrigortu zuten. Baina kirolarekiko pasioa horren indartsua izanik, ezin saskietatik urrun mantendu. Entrenatzaile postua ere gustoko zuenez, horretan hasi zen duela lau zapabost urte, eta bertan jarraitzen du: "Entrenatzailearen

tokia, poztasun eta satisfakzio handiko une asko ematen ditu".

Berak adierazi zigunez, Goierri K.E. aurtan bere 50. urteurrena ospatzeak, ez

## Goierri K.E. ren saskibaloia sailak 50. urteurrena ospatuko du datozen hilabeteetan

dauka inongo zerikusirik neska talde bat eratzearen proiektu horrekin: "Ez, ez dauka inongo zerikusirik. Kasualitatea izan da aurtan sortzea. Guk ekainean, astebeteko luzapena edukitzen duten kampus batzuk antolatzen ditugu. Azkenengo urte hauetan hiruzpalau neska egon dira kampus bako-

tzean, baina ez talde bat eratze haina". Baina aurtan, beste taldeen lehen entrenamendu saioak astearekin batera, Aitorren harridurarako 9-10 neska agertu ziren polikiroldegian iraila partean, entrenatzeko, jokatzeko eta azken finean talde bat osatzeko helburu eta gogoarekin. "Guk ez genuen inongo trabarik jarri, areago, oso ondo iruditu zitzaigun".

Argi zeukaten Goierrikoek, nesken saskibaloia inguruan, herriak zuen gabezia edo hutsune hori bete beharra zegoela: "Taldea ateratzeko desiatzen geunden. Neskek lehen, bai entrenatzeko eta bai jokatzeko Legazpiraino joan beharra zeukaten, eta horrek borondate eta sakrifizio handia eskatzen du. Orain, hutsune hori beteta dugu neurri batean".

Taldearen konposaketa egiterako orduan inongo arazorik ez dutela izan esan zigun: "12 neskek osatzen dute taldea.

# Baloiak? Zergatik ez!

Fitxa guztiak bete ahal izan ditugu. Junior mailan jokatzeko dugu, hau da, 16-17 urte dituzten neskek dira, nahiz eta pare bat gaztetxogoa izan". Aldagelako giroa bikaina dela aitortu zigun, gainera, berak ere badaki giro hori arrakasta ororen oinarria izaten dela. "Oso gustura nago sortu den giroarekin".

Nahiz eta hasiberriak izan, talde guztien moduan helburu batzuk finkatu dituzte: "Aurtengoa estraineko denboraldia izanik, ikasteko erabiliko dugu. Hori bai, edozein kiroleretan bezala, ondo pasatzen eta kirol honekin gozatzen saiatuko gara". Bere aburuz, garrantzitsua da gazte jendeak egiteko zerebait edukitzea, motibatzen dion edozein ekintzatan partehartzeko aukera hori izatea.

Lortutako emaitzei oraingoz ez dietela garrantzi handiegirik ematen adierazi zigun, maila ezagutu ahala euren emaitzak eta aukerak baloratuko dituzte: "Oraingoz partidu batzuk irabazi ditugu eta

beste batzuk galdu. Dena dela, garrantzitsua den taldeak lan egiteko eta hobetzeko erakusten duen ilusio eta gogo hori da. Partidak jokatzeko goazen heinean emaitzak baloratuko ditugu".

## "Aurtengoa, estraineko denboraldia izanik, ikasteko erabiliko dugu gehienbat"

Entrenatzerako orduan neskek ala mutilak, zer nahiago dituen galdetzerakoan, hau izan zen erantzuna: "Esperientzi polita eta era berean interesgarria da. Ez dut ezberdintasun handirik nabaritu. Moskeoak eta haserreak guztiekin egoten dira, izan ere, batzuetan gauzek eskuetatik ihes egiten dizute, baina bestela oso ondo. Esan beharra daukat hasera batean beldur pixk bat banuela, ez nuelako inor ere eza-

gutzen, baina segituan egiten zara. Asko disfrutatzen ari naiz".

Komunikabideetan eta gizartearen orokorrean, emakumeen kirolari eskaintzen zaion tarte txikiak ere mintzatu ginen. "Komunikabideak, gauza handiren bat lortzen denean soilik ardura-tzen dira honetaz, bestela alboratuta daukate". Diru kontuan al dago arazo? "Bai zalantzarik gabe. Dirua, kirol maskulinoan inbertitzen da, eta gizarte hau sosen arabera mugitzen denez... egun bizi dugun egoera honen aldaketa zaila ikusten dut oso".


Bestalde, datozen hilabeteetan, Goierri K.E-ren saskibaloi sailak 50 urteurrena ospatuko du, hori dela eta horren arian zer edo zer aurreratzeko eskatu genion Aitorri: "Oraingoz, ideia batzuk dauzkagu. Ziurrenik, Goierri iragan diren pertsonen artean bazkari bat ospatuko dugu, gero agian partidu garrantzitsu bat antola dezakegu... gauzak berde xamar daude oraindik".

## Zumarragarren eta urretxuarren sailkapena Behobia-Donostia lasterketan

Ricardo Valeda Prieto	69	1:08:45
Jesus Lizarazu Elizburu	146	1:12:24
Asier Aranburu San Pedro	171	1:12:59
Julio Pascual Gonzalez	229	1:14:12
Benito Martinez Elgarresta	231	1:14:13
Pedro Garcia Rodriguez	331	1:16:19
Tasio Gomez Garcia	340	1:16:29
Roberto Larraza Martinez	480	1:18:22
Roberto Garcia Olea	491	1:18:28
Ismael Berasategi Escudero	541	1:18:54
Juan Ignacio Senosiain Antia	553	1:19:01
Aitor Telleria Etxeberria	554	1:19:02
Jon Ander Corera Ulacia	673	1:20:12
Raul Montiel Gonzalez	678	1:20:14
Iñaki Ganuza Beain	865	1:21:52
Jon Otermin Zelaya	1024	1:22:59
Jesus Mari Arrazola Eguren	1146	1:23:50
Aitor Lizarazu Elizburu	1254	1:24:27
Juan Ignacio Mendiola Lopez	1415	1:25:20
Xabier Urmeneta Ayastui	1496	1:25:51
Mikel Fernandez Atxa	1746	1:27:27
Luis Maria Fernandez Maiztegi	1992	1:28:46
Patxi Perez Perez	2054	1:28:55
Aritz Arbizu Zabalo	2204	1:29:37
Luis Maria Torres Jauregi	2447	1:31:09
Jose Maria Jimenez Teniente	2508	1:31:30

J. Miguel Rodriguez Fernandez	2626	1:32:09
Juan Francisco Perez Mungia	2736	1:32:47
Sergio Chao Ayala	2812	1:33:13
Jakes Antia Juaristi	2818	1:33:14
J. A. Calvo Fdez. de Aranbuiz	2861	1:33:27
Egoitz Asurabarrena Zipitria	2878	1:33:32
Iosu Perez Hernandez	3012	1:34:09
Aitor Barrenetxea Aranguren	3239	1:35:13
Gorka Ganuza Azpiazu	3369	1:35:51
Jose Antonio Unanue Etxeberria	3477	1:36:24
Agustin Elosegi Izagirre	3551	1:36:45
Fernando Isasa Etxaniz	3606	1:36:58
Juan Carlos Pastrian Prieto	3851	1:38:08
David Landa Laskibar	3888	1:38:20
Jose Ignacio Amado Santillana	3928	1:38:33
Josu Sasieta Barrenetxea	3938	1:38:38
Xabier Egea Jauregi	4267	1:40:12
Anjel Berdud Rodriguez	4285	1:40:17
Mikel Igarza Zaldua	4331	1:40:29
Diego Tena Hidalgo	4367	1:40:38
Marcos Muñoz Caballero	4571	1:41:43
Jon Ugarte Arrizabalaga	4585	1:41:46
Jon Mikel Mendia Zufiaur	4642	1:42:04
Aitor Etxeberria Iraola	4643	1:42:05
Iñaki Larrea Mujika	4645	1:42:05
Asier Murua Moreno	4673	1:42:13

Gemma Hernandez Andoain	4677	1:42:14
J. Mari Iruve Sasieta	4839	1:42:57
Ismael Pradilla Kerejeta	4931	1:43:28
Iñaki Beruete Galdeano	5030	1:43:54
Jose Luis Mujika Zabalo	5101	1:44:15
Iñigo Tobar Sanchez	5209	1:44:52
Jon Madina Albijua	5412	1:46:02
Aitor Sarasua Irupe	5503	1:46:34
Garikoitz Madina Arrieta	5545	1:46:49
Gilberto Cruz Benavides	5551	1:46:50
Olatz Sasieta Ormaetxea	5660	1:47:26
Gaizka Lete	5808	1:48:30
Gorka Lasa Agirrezabal	5886	1:48:59
Mikel Estebanez Martin	5909	1:49:09
Elixabete Lasa Garmendia	6246	1:51:19
Jose Mari Lasa Zinkunegi	6254	1:51:21
Izaro Idigoras Jauregi	6524	1:53:25
Begoña Balerdi Saralegi	6531	1:53:28
Nerea Gago Rezola	6534	1:53:29
Aitor Plazaola Urizabal	6665	1:54:27
Unai Zabaleta Aldasoro	6840	1:55:54
Juan Mari Goñi Muskiz	6940	1:56:58
Asier Aranguren Ezkurra	7019	1:57:44
Gurutx Zuza Elgarresta	7176	1:59:31
Aloña Idigoras Jauregi	7197	1:59:56
Aitor Gago Rezola	7214	2:00:11



## Anjel Erratzu

Anjel jaiotzez urretxuarra bada ere, bi urte zituela aita hil zitzaion eta ama berriro ezkondu zenean Aizpurutxora joan zen bizitzera. Bertan bizi izan zen Urretxura ezkondu zen arte. Ikasketak Aizpurutxon egin zituen eta ikastea atsegin zuen arren, baserrian lana egin beharra zegoen eta ez zuen ikasketekin jarraitzeko aukerarik izan. Dena den, soldaduskara joan aurretik korrespondentziaz delinante ikasketak egiten aritu zen.

15 urterekin eraikuntzan lanean hasi zen eta, besteak beste, Aizpurutxoko eskolaren eta frontoiaren eraikuntza lanetan aritu zen. Ondoren, Azkoitiko eta Urretxuko

hainbat lantegitan aritu zen arren, eraikuntza lanera itzuli zen. Izan ere, Anjelek oso gustukoa du eraikuntza mundua.

Dena den, Anjel herrian ezaguna bada, oso gaztetatik herri kirolen munduan aritu delako da. Aizpurutxon hasi zen herri kiroletan parte hartzen eta saioak antolatzen eta Urretxura etorri zenean lan honetan jarraitu zuen. 1980an Urretxu-Zumarragako Golden sokatira taldea sortu zuten eta Euskal Herriko liga hainbatetan irabazi zuten, atzerrian aritzeko dirulaguntza jaso zuten. Suitzan, Holandan, Italian, Irlandan... izan ziren eta Angelek dioenez, "garai hartan kanpoko taldeak gu baino askoz hobekak ziren. Gainera, gu hormigoi gainean tiratzen ohituak geunden eta lur gainean hasi ginenean ez genuen asma-tzen". Hori dela eta, Ingalaterrako prestatzaile bat ekarri zuten lur gainean tiratzen ikasteko asmoz.

Esan bezala, Anjelek makina bat herri kirol saio ere antolatu ditu herrian. 1977an hasi zen lan honetan eta berak esan digunez, "ordutik zaletasuna asko jaitsi da, baina kirolariak lehen baino askoz hobeto prestatzen dira. Ino Ugarteburuk eta biok urte asko daramatzagu herrian herri kirol saioak antolatu-tzen, baina egunen batean uzten badugu norbaitek lekukoa hartuko duela uste dut".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Hargina eta harrijasotzailea.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Denbora libre gutxi dut, baina astia dudanean mendira joatea eta euskaraz zer edo zer irakurtzea gustatzen zait.

### -Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

### -Gehien atsegin duzun herri kirola?

Guztiak atsegin ditut, baina gehien gehienak aizkolaritza eta sokatira.

### -Gustuko aizkolaria?

Mindegia.

### -Gustuko harrijasotzailea?

Goenatxo II.

### -Ikusi duzun sokatira talderik onena?

Kanpora joaten ginenean ingelesak ziren onenak. Orain Nuarbeko taldea hauen pare dago.

### -Gustuko pilotaria?

Retegi, Titin, Goñi II...

### -Plazarik onena?

Azpeitikoa eta Tolosakoa.

### -Ileheriak ala beltzaranak?

Ileheriak.

### -Egindako azken oparia?

Kolonia.

### -Eta jasotakoa?

Liburu bat.

### -Data bat?

Abenduaren 20a. Duela urte batzuk, data horretan ia itota hil nintzen Zumarragako igerilekuan. Ur azpira joan nintzen eta ozta-ozta atera ninduten bizirik.

### -Neska eta mutil izen bana?

Miren eta Mikel.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Deia eta Egunkaria.

### -Gustuko telebista saioa?

Pilota emanaldiak eta Goenkale.

### -Bereziki gorroto duzuna?

Bat esatearren, Gran Hermano.

### -Liburu bat.

Pello Zabalarrena. Tenporak, hil bakoitzari dagokion san-toral eta esanahia... jorratzen dituen.

### -Filme bat.

Ez naiz filme zalea.

### -Gustuko abestia?

Benito Lertxundiren edozein.

### -Soinu bat.

Trikitixarena.

### -Usain bat.

Ihartutako belarrarena, garoarena...

### -Janari bat.

Bixigua eta txuleta, biak parrilan.

### -Ura ala...

Ardo beltza.

# ZELETA

Ondo pasa Santa Lutziak!

## BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA


- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena



ZELETA BASERRIA  
San Migel auzoa ELGOIBAR

URRETXUKO EROSKIN AURKI DITZAKEZUE GURE PRODUKTUAK

## Behi Esnea



Ohizko sukaldeko benetako zaporea lortzeko aproposena

### Zaporeduna

Santa Lutzi jai zorientsuak opa dizkizuegu

## ESKAINNTZA BEREZIA

Esnezaleen helbideak xorrotik moztearekin bakarrik.


Eskatu oparia zure dendan:

a) Diska egalaria: 10 helbide

b) Kometa: 15 helbide

d) Aterkia: 25 helbide

Promozioa edukiak bukatu arte



Behi Esnea produktoreak



Agerre baserria  
Tel. 943-72 40 36  
Urretxu, Gipuzkoa  
B.Z. 95.4.00005/SS Nf.A



Iztueta Elkartea  
943-88 41 36 /943-88 48 60  
Lazkaoendil, Lazkao, Gipuzkoa  
B.Z. 95.4.00003/SS Nf.A



Agote Etxeberri baserria  
Au/Garin 17, Beasain  
Gipuzkoa

**IKER**

**SUKALDE  
ERAKUSKETA**

**FAGOR**



**Udala enparantza, z/g.**

☎ 943 79 00 43

**20500 ARRASATE**

**Ipeñarrieta, 5**

☎ 943 72 50 75

**20700 URRETUXU**